

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Urepele

Aurkibidea

Udalerria: Urepele

Sarrera



Urepele Nafarroa Behereko udalerria da, Aldudeko ibarrean eta Baigorri-Ortzaize eskualdean kokatua dagoena. Iparraldetik Banka du mugakide, mendebaldetik Aldude mendebaldean, eta, hegoaldean Nafarroa Garaiarekin. Urepele, aintzinean Aldudeko herria besterik ez zena, udalerririk independente bihurtu zen 1862ko otsailaren 15ean. Udalerriko ekonomiaren oinarria laborantza den arren, udalerritik igarotzen diren erreken uraren kalitatea dela eta piszikultura esplotazio baten garapena ahalbidetu du.

- **Biztanleak:** 327
- **Euskaldunak:** %63,46

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **16**
- Zintak: **16**
- Pasarteak: **81**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **68**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- Euskalkiak.eus
- IKER taldea

Hizlariak



Miren Aire (1976)

Miren Aire Urepeleko artzaina da. 2001ean, ardi-tropa bat erosi zuen eta lurak alokatzen zituen bazka lortzeko. Geroago, Urepeleko amaren Iturribeltzea etxaldean kokatu zen. Ardi-gazta egiten dute etxaldea. Artzain baten egunerokotasunez hitz egin du.

Manuel Alzugarai (1915-2010)



Lesakan sortua. Espainiako Gerran soldadu ibili ondoan, ihes egin zuen Lapurdira. Urruñako senide batzuen etxean egon ondoan, Landetara joan zen oihanetan lanean aritzera. Bertan hainbat errefuxiatu aurkitu zituen. Bigarren Mundu Gerran, Bankako eta Urepelgo oihanetan aritu zen ikazkin lanetan. Urepelen ezkondurik, laborantzaz eta kontrabandaz eraman du bizia. Ikazkin bezala ezaguna izan da beti.

Maddi Arrambel (1916)



Gazte denboran, sehi egon zen Baigorriko enpresaburu baten etxean. Bigarren Mundu Gerra bizi izan du. Oroitzapen latza du, Alemanekin kolaborazio lanetan ibiltzeaz akusatzen baitzuten denboran. Bere nagusia ezaguna da Baigorriin, ikatz eta egur negozio handia eraman baitzuen alemanekin. Ondoren, Maddik botiga bat atxiki du Urepelen. Bere auzoko aldaketak bizi izan ditu, turismo leku ospetsua baitzen lehen. Fededun handia ere da. Urepeleko emazterik xaharrena.

Txomin Arranbide (1922)



Kalifornian, AEBn sortua. Aita Urepelekoa zuen eta ama Hazparnekoa. Gurasoek Ameriketara ezagutu zuten elkar eta han izan zituzten bi seme-alabak. 1933an, berak 10 urte zituela, lurrikara bat izan zen Long Beach-en, beraiek bizi ziren inguruan, eta ama lurrikara horren ondorioz zendu zen. Orduan, familia osoa aitaren sorterrira itzuli zen, Urepelera. Txomin laborantxari lotu zen orduan, halaberrez. Ikasketak eginen zituen gogotik, edo AEBra berriz itzuli. Hala ere, jakintsuna egin da irakurriz, eta herriko auzapeza ere izana da 1971-1977 bitartean. Haurrak eskolara eraman zituen lehen autobusa berak plantatu zuen. Xalbadorren omenaldia berak antolatu zuen.

Rosy Canardelle Arrambel (1917)



Urepelen sortua, baina Angelun bizi. Sorterritik Iruñera joan zen, bertako familia baten etxera, haur zaintzera, eta frantsesa irakastera. Bigarren Mundu Gerran, Parisen bizi zen, eta bere senarrarekin erresistentziako kideak, zein soldadu ingelesak gordetzen zituzten etxean. Norbaitek salaturik, Gestapoak preso hartu zituen, baina hilabete batzuk Fresnes presondegian atxiki ondoan, askatu. Urepelera itzuli ziren orduan, eta handik Auritzera (Nafarroa) pasatu. Bertatik Madrilera, eta Ingalaterrara, hegazkinez.

Jean-Pierre Erreca (1931)



Jean-Pierre Erreca 1931ko martxoaren 8an sortu zen Kintoako Pallaenea etxean. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Urepeleko Lohitze Beherea etxekoa. 20 urtetan Estatu Batuetara joan zen eta han egon zen 14 urtez, lehenik artzain eta gero kanpero gisa. 1965ean itzuli zen Euskal Herrira emaztea eta hiru hurrekin. Ondoko 24 urtetan Baiona-Angeluko Carrefour supermerkatuko harategian ari izan zen. 1989an erretiratu zenean, Errek-arte etxea eraiki zuen Pallaeneatik hurbil, Frantzia-Espainiako mugan. Saltegi bat atxiki du hor 12 urtez.

Domingo Etxebarren (1922)



Xoriainean sortu eta bizi izandakoa da. Artzaina izanik, Lapurdin atxikitzen zituen ardiak neguan eta udan Urepelgo mendietan. Gerra denboran lanera deitu zuten baina, baimen bat baliatuz, gerra bukatu arte gorderik egon zen.

Joanes Etxebarren (1921)



Xoriainean sortua eta bertan bizi izandakoa da. Laboraria izateaz gain, kontrabandan ere pila bat aritu da. Aleman okupazio denboran, Austriako soldadu batekin adiskidetu zen.

Xanpier Etxebarren (1927)



Xoriainean sortua eta bizi izandakoa da. Artzaina, neguan Lapurdin zituen ardiak eta udan Urepelgo mendietan, bi anaien artaldeekin batera.

Jamattitt Glaise (1925)



Urepelen ereman du bizi guzia, laborari gisa. Ez du ardirik sekulan izan. Lan anitz egin du bestalde : xerri hiltzen, mando ferratzen, ile mozten, karroak konpontzen... Herriko klikean ere danbor jole famatua izana da. Lehen egiten ziren karatopak ere bizi izan ditu.

Angèle Harriet (1926)



Xokolategile familiakoa, lan eta lan aritu da haur denboran. Botigako segida hartu du senarrarekin. Bixkotxa paregabeak egiteaz gain, bizitasun handia ematen zion herriko plazari denda txiki horrek. Euskalzalea eta bestazalea, herriko bestak kontatu ditu.

URE-010 Hizlari ezezaguna (1953)

URE-011 Hizlari ezezaguna (1926)

URE-012 Hizlari ezezaguna (1956)

Babet Salaberri (1924)



Laboraria baino gehiago, artzaina da emazte hau. Gauza arraroa, gizonen premia izan baita hori beti. Baina neguan bazketara joaten zen Lapurdira, eta udan mendian atxikitzen zituen ardiak. Hala ere, baserriko emazteen lan guziak egin ditu, bai sukaldean, bai kanpoan. Etxeetako bestetaz oroitzapen bereziak ditu : ardi-mozte, xerri hiltze, eta, batez ere, arto zuritzea, non jendea dantzari aritzen zen harmonika baten soinuan. Bigarren Mundu Gerran, bere aita eraman zuten, erresistentziako gizonak gordetzen zutelakoan.

Xelextin Saroiberri (1919)



Herriko plazako ostatu eta hotelean sortua, hazia. Pilotan ere aritzen zen gaztaroan, nahiz eta gaizki ikusia zen hori bere garaian. Lehengo bizimoldeak deskribatu ditu, nola Donibane Garazira edo Baionara joaten zen, bizikletaz, erosketak egitera. Herriko bestak ere hurbiletik bizi izan ditu, horien aldaketak ere bai. Bigarren Mundu Gerran, errestistentzian aritu da lanak egiten. Bere anaia ere gorde zuen etxean, nahiz eta aleman soldaduen bititokia izan garaian.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Zigorra euskaraz egiteagatik

- **Hizlaria(k)**: Saroiberri, Xelextin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: URE-007/008
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:09:18. **Bukatu**: 00:11:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Zigortu egiten zituzten euskaraz mintzatzeagatik. Tintontziaren zera (?) ematen zitzaion euskaraz egiten atzematen zenari, hark hurrengoari, eta horrela hondarra, azkena, zigortu egiten zuen irakasleak. Beraiek euskaraz mintzaten ziren. Bera ez zuten zigortu izan, errientak, irakasleak ostatuan hartzen zituztenez haiekin trebatzen zirelako frantsesez. Kanpotarrak izaten ziren irakasleak.

Transkripzioa

- Zer zen gaizki egitea orduan, denboran?
- Ba! Gaizki egitea, edo zeeit... eskuaraz mintzatzea bera, gaizki zen. Punitzen gintuzten.
- A bai?
- Ba, ba, ba, ba.
- Zer? Delako makila hura bazenuten?
- Baginiin eta ankreaen egiteko baziin holaxeko tūba ttipi batzu, eta gero heetan, hek husten zirelaik, atxikitzen zituzten, eta gero eskolan ginelaik, eskuaraz mintzaten baginen, batetik bertzerat paasten giniin, bertzela [...] mintzo, fite paasten [...] zeen eta hondarra puni baitzen, gero, hondarrak atxemaiten ziena, hura... hura puni zen. Ai ei ama, ba, ba! Geoztik kanbiatu dia denek, behar e' funtsian.
- Zuek, bistan da, euskaraz mintzaten zinetela elkarren artean, orduan.
- Eskuaraz mintzaten ginen elgarren artian, nahiago giniin ba frantsesez baino! Ez gainakin biziki frantsesa eta eskuaraz usatiak ginen, ta alabainan... Hartako, ez baginen /ezpaginen/ gero untsa segitzen eskolan,

baakizu, frantsesa ez giniin untsa egiten. Nahi zuten ikastia 're, doaika, areatik e' ez gintuzten uzten, areatik.

- Eta zu punitua izana zara behin ere, horretarako, edo...?

- Ni ez, ez zait /etzait/ gertatu punitia izaitea, ez. Aritzen nintzen frango aise frantsesian e', zeren ta errientsak ama gintiin etxian, heekin trabatzen ginen gehiao, bertziak baino. Baziren bat ez zirenak /etzirenak/ trebe. Aizu. Bainan hala...

- Eta errientsak nongoak ziren? Batere ez hemengoak, edo?

- Ez hemengoak, ez. Beheretik jiten ziren. Gero, hala, hemen beherian egoiten ziren. Ez ziren /etziren/ joaiten beren etxeat. Hemen egoiten ziren. Ba. Eta hala. Ba errients zerak gintiin. Nik ez dut /eztut/ erraitekoik. Errients unak ziren, ba.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxerako bidea eta ura (URE-005/004)

Etxerako bidea dinamitaz eta aitzurka egin zuten langileek 1956an. Ordura arte, oinez ibiltzen ziren beti. Haur denboran argindarrak ez zuten etxean. Ura nola ekarri zuten kontatzen du Xanpierre; aurretik ur bila joan beharra izaten zuten. Inguruko hainbat etxetan astoz ibiltzen ziren ura eramaten.

2. Ardiak, behiak, astoak eta ahuntzak etxean (URE-005/005)

Ardiak, behiak, astoak eta ahuntzak zituzten etxean. Astoekin egurra ekartzen zuten. Ahuntzekin, pittikak (antxumeak) saldu eta dirua lortzen zuten. Abereek mendiak garbi mantentzen zituzten.

3. Hiru artalde etxean (URE-005/006)

Abereak nondik nora ibiltzen ziren aipatzen dute. Anai bakoitzak bere artaldea zuen eta batzuetan hiru anaien ardiak batera ibiltzen ziren, 800-900 buru. Xoriaineko etxola beraiek egin zuten. Xoriaineko bordan belarra egiten zuten baina basurdeak ibiltzen hasi zirenean, utzi egin behar izan zuten.

4. Mendiak garbi (URE-005/007)

Orain baino hobeto zaintzen zela mendia dio Xanpierre. Abere asko izaten ziren eta jende asko ibiltzen zen. Orduko artzainak izendatzen dituzte eta ez zela elkarren artean tirabirarik inoiz izaten aipatzen dute.

5. Ardiekin bazketan batetik bestera (URE-005/008)

Artzain lanetan batetik bestera ibili izan dira Xanpier eta Domingo.

6. Ardi burubeltzak eta burugorriak (URE-005/009)

Ardi burubeltzak eta burugorriak zituzten, azken hauek merkeagoak baitziren. Arraza bien arteko desberdintasunak azaltzen dituzten.

7. Ardiak kendu beharra (URE-005/010)

Joanesek ez zituen ardiak inora eramaten, etxean mantentzen zituen ehun bat buru. Gainontzeko abereak ere zaintzen zituen. Paueko gizon bat etorri eta ardiak kenarazi zizkien, hainbat baldintza jarrita.

8. Ardien gaitzak (URE-005/011)

Erremedioak baliatzen ziren ardientzat. Mukiak eta zizareak izaten zituzten ardiek baina gaitz berriak sortu ziren gerora.

9. Ardien inguruko sineskeriak (URE-005/012)

Gorosti adarrak arditegietan jartzen ziren zakarrieriaren kontra baina beraiek ez. Bildots beltza sortzeak xantza eragiten zuela uste zuten batzuek. Ezpeletan gertatutako pasarte bat kontatzen du Xanpierrek.

10. Ardien bazka (URE-005/013)

Ardiei belarra eta soroa eskaintzen zizkieten eta artoa ere ematen zieten. Ardiak osasuntsuago bizi ziren. Gaztainak eta ezkurak ere jaten zituzten. Baztan aldean lizar hostoak ematen zizkieten. Zenbaitek "iraxaharra" egiten zuen.

11. Gaueko lanetan ibiliak (URE-005/014)

Gaueko lanetan hiru anaiak ibiliak dira aurreko belaunaldiei segida emanaz. Zer ekarri eta eramaten zuten aipatzen du Joanesek. Bizimodua aurrera ateratzeko beharrezkoa zen gaueko lanetan ibiltzea edo Ameriketara joatea. Nola lan egiten zuten azaltzen dute. Kontrabandisten bideak baziren. Karabineroengandik ihesi ibiltzen ziren ilunpean.

12. Kontrabandaren antolatzaileak (URE-005/015)

Aro txarrarekin ere gaueko lanean aritzen ziren. Baziren koordinazio lana egiten zutenak eta haiek ematen zizkieten aginduak eta dirua.

13. Kontrabandaren arriskuak (URE-005/016)

Paketeak eramaten zituzten kontrabandan. Tiroka hartzen zituzten karabineroek zenbaitetan. Lapurdiko lurretan hainbat gai garraiatzea libre izaten zuten. Nola ibiltzen ziren kontatzen du Joanesek.

14. Jendearen joan-etorria (URE-005/017)

Mugaz bestaldetik jendea pasatzen zutenean, beraiek ez zuten jakiten. Gerra garaian espainiarrak eta geroago portugaldarrak ere igarotzen ziren. Bordetan eta kobazuloetan gordetzen zituzten.

15. Iheslariak eta artzaien baimenak (URE-005/018)

Espainiako gerla denboran, iheslariak harrapatzen bazituzten hil egiten zituzten. Erreketeak eta falangistak ibiltzen ziren inguruetan. Gertaera bat kontatzen du Joanesek. Bertako jendeak kontuz ibili behar izaten zuen. Mendian ibiltzeko artzaiek agiri bat edukitzen zuten baimen gisara.

16. Gerla Handira joan beharra (URE-005/020)

Urepelen zortzi lagun galdegin zituzten Gerla Handira joateko; izenak ematen ditu. Eraman egin zituzten eta bideak eta trintxerak egiten aritu ziren.

Alemaniarra joatera behartu zituztenean, lau joan ziren eta haietatik hiru bertan hil ziren. Ezkutuan egon zen Domingo bi urtez.

17. Alemaniarrak Urepelen (URE-005/022)

Alemaniarren garaian, barrakoiak non egin zituzten aipatzen du Xanpierre. Tiroz hartu zituztenez pasarteak kontatzen ditu. Urepelen andana egon ziren. Baserrietan erosten zuten behar zutena. Ez ziren beraien borondatez etorritakoak, behartuak baizik.

18. Austriar soldaduen lagun (URE-005/023)

Alemaniarrek izan ordez, austriarrak ziren. Batekin laguntasuna egin zuten eta beraien aitarekin egoten zen hizketan. Aita 1914ko gerlan bortxaz ibilia izan zen, soldadua bezala.

19. Gerlatik ezkutuan (URE-005/025)

Domingo bezala, beste hiru lagun ere ezkutuan egon ziren. Beldurrez egoten ziren. Espainiarrek iheslariak bildu eta Argeliara bidali zituzten.

20. Benta eta autoentzako bidea (URE-005/028)

Bentak negozio handia egiten zuen. Arno saltzea beti egin izan dute haiek. Bidea egin zenean eta autoak pasatzen hasi, bentak negozio handia egin zuen. Bide hertsia zenez, trabatuta gelditzen ziren autoak.

21. Saltokiak eta ostatuak (URE-005/030)

Saltokiak izendatzen dituzte. Kapontarrak ere joaten ziren, baita oihaneko langileak ere. Lehen ostatuarekin bizi zirenek, orain ez dutela diote. Meztatik landa, tragoa hartu eta mus partida jokatzen zuten.

22. Urepeleko bestak (URE-005/031)

Herriko bestetara joaten ziren. Orduan denetara oinez joatea zen usaia. Hiru-lau eguneko bestak izaten ziren eta azken egunean biltzen zen jende gehiena. Pilota partidak jokatzen zituzten bertako gazteek. Soinujolearekin eta taldearekin dantzaldia izaten zuten. Balde zahar bati joka ere jostatzen ziren.

23. Urepeleko bertsolariak eta bertso saioak (URE-005/032)

Kantuz ere aritzen ziren bestetan baina bertsoan ez. Lehenbiziko entzun zuten bertsolaria Permundo izan zen eta hura baino hobea izan zen Xalbador. Oroitzen dira hura bertsoan entzun izanaz. Omenaldian izan ziren. Bestetan Xalbador eta Mattin aritzen ziren. Jende asko biltzen zuten.

24. Gida baimena berrogei urterekin (URE-005/034)

Baionan gida baimena lortu zuen berrogei urterekin Xanpierre. Zer dela eta animatu zen kontatzen du.

25. Eskola garaia (URE-005/036)

Eskolara joaten ziren. Orduan lana zen eskola; etxeko betebeharreran aritzen ziren. Herrikanpora ez zen inor joaten lehen. Hiru eskola ziren: haur ttipiena, nagusiagoena eta nagusia. Zenbait Hazparnera joaten ziren ikasketak egitera.

26. Eskolan frantsesez egin beharra (URE-005/037)

Frantsesik ez zuten ongi ikasi eskolan. Irakasle gehienek ez zekiten euskaraz. Haur ttipien eskolan Irulegiko irakasle euskalduna izan zuen Xanpierre, eta debekatua izan arren, euskaraz ematen zizkien azalpenak. Eskolan alde batean neskak eta bestean mutilak izaten ziren baina kanpoan nahas.

27. Liburuaren bitartez artzain ikastea (URE-005/038)

Ardiekin ibiltzeko ez zutela eskolarik behar diote, ardiek erakusten baitute. Xanpier Mugerren bazketan ari zela, liburuaren bitartez artzain izateko ikasten ari zen batekin izan zuen elkarriketa kontaktzen du.

28. Etxezuria ostatuako lanak (URE-007/002)

Etxezuria ostatuan jaioa da Xelestin. 11 haurride ziren, 9.a bera. Lan asko egiten zen ostatuan jan-edanak ematen. Ilunabarretan musean jokatzera etortzen zen jendea. Gaueko 11etan ixten zen, jendarmeak erronda egiten zutenean. Garbiketako lanak, sukaldean lagundu..., denetik egin behar izaten zuen. Xuriketako (lixiba) egitera "latsarat" joaten ziren, errekarat. Logelak ere bazituzten ostatuan.

29. Etxezuria edo Zinkoenea ostatuaren izena (URE-007/003)

Ostatuari Etxezuriaz gain Zinkoenea ere deitzen zaio, aita gaineko Zinkoenea etxaldean sortua zelako. Zinko Zaharra esaten zioten denek aitari.

30. Bizikletan Donibane Garazira eta noranahi (URE-007/005)

Urepeleko bide nagusia ere txarra zen. Aunitz ibiltzen ziren bizikletan. Donibane Garazira ere aise joaten ziren. 20 urte zituen behean lehen urepeldarrak autoa erosi zuenean.

31. Neskak eta mutilak eskola ezberdinetan (URE-007/007)

Lau urterekin hasi zen eskolara joaten. Neskak eta mutilak bereizita zeuden bi eskolatan. Ez ziren inoiz elkartzeko, zigor gisa beste eskolara igortzen zituztenean izan ezik. Orain denak elkarrekin dira.

32. Etxean lanean nahiago eskolara joan baino (URE-007/009)

Haurrek baserriko lanetan jardun behar izaten zuten, behizain, esaterako. Erraz egiten zuten eskolara huts. Bera joan joaten zen, baina ez zuen oso gogoko eskola. Nahiago etxean lanean. Donapaleun ere ibili zen eskolan 15-16 urterekin. Sukaldea eta horrelakoak ikasten ziren.

33. Baigorri jostun-lanean (URE-007/010)

Donapaleutik bueltan, Baigorri hasi zen lanean, josten. Baziren etxez etxe bere makinarekin ibiltzen ziren jostunak. Hasierako makinak ez zuten pedalik, eskuz eragin behar zitzairen. Ez zituen haiek aunitz maite. "Zangokilakoa", berriz, bai.

34. Argindarra hiru orenez bakarrik (URE-007/011)

Argindarra gaueko iluntzeko zortzietatik gaueko hamaikak arte ematen zuten. Gainontzean buxiekin eta petrolio-ontziekin moldatzen ziren.

35. II. Mundu Gerlaren hasiera (URE-007/012)

Gogoan du bandoa nola jo zuten II. Mundu Gerla hasi zenean. "Jende unak..." hasten zen bandoa. Herriko festak ziren. Adin baterainoko gizon guztiak bidali zituzten gerlara. Gogoan du nola joan zen Baionara garai hartan etanola trenan mukuru beteta zihoan soldaduz eta bestelakoz. Gero etorriko ziren hildakoak, presoak, iheslariak...

36. Xelestin erresistentziarako lanean (URE-007/013)

Piarre koinatua, ahizparen senargaia garaia hartan, preso hartu zuten erresistentzian ibiltzeagatik; handik denbora batera askatu zuten. Gurasoen jaiotetxean, Zinkoenean, erresistentziakoen atzera-aurrera handia zebilen. Berak ere usu egin zuen haiendako lan, mezuak batetik bestera eramaten batez ere. Ez ziren jabetzen nolako arriskuan sartzen ziren. Kontrabandorik, aldiz, ez zuen egin. Elurretan ere ibiltzen zen anaia, zurezko "erraketak" eginda. Alemanek ez zuten susmo txarrik izaten. Berak ostatuan zerbitzatzen zituen eta bide batez galderak egin, gero informazioa koinatu gaiari pasatzeko. Gogo onez aritzen ziren.

37. Kontrol batean gelditu zutenekoa (URE-007/014)

"Carte de identité", nortasun agiri faltsuak ekarri izan zituzten erresistentziarentzat. Piarre, koinatua, Espainiarat joan zen ihesi, ahizparekin ezkondu eta laster. Xelestin ibilia da nortasun agiriak egiten. Alemanek galdekatu zuten Xelestin hori dela eta. Ez zen konturatzen nolako arriskuan sartuta zebilen. Behin Baigorritik gauez bizikletan zetorrelarik, kontrol batean gelditu zuten. Ordukoa kontatzen du umorez. "Lumiere kaput" erantzun zien, bizikletaren argia itzalita zergatik zekarren galdetu ziotenean. Gaueko bederatzietan ezartzen zen "etxeratze agindua".

38. Alemanak etxean (URE-007/015)

Ontsa portatzen omen ziren soldadu alemanak, edanak ez bazeuden, bederen. Zinkoeneko ganbarako atea irekita utzi behar izaten zuten alemanentzat. Alimaleko azantzak ateratzen zituzten edanda zeudenean. Behin batek tiroa bota zuen etxe barruan. Soldadu arruntak umilagoak omen ziren buruzagiak baino. Gerla biziki tristea omen da.

39. Merkatu beltza (URE-007/016)

Ostatuan alkohola ere saltzen zen. Arnoa eta garagardoa batez ere. Errazionamendu karta bazuten, azukrea eta horrelako produktuentzat. Merkatu beltz handia zegoen. Hirian bazen gosea baina Urepel aldean ez. Gainera, muga hain hurbil izanda, kontrabando bidez hornitzen ziren Kintoan (Quinto Real). Merkatu beltzak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

40. Anaia Beñat eta herriko errieta (maisua) alemanei ihesi (URE-007/017)

Xelestinen anaia Beñat Kintoan ezkutatuta egon zen, errietaekin batera. Errietaen (maisua) istorioa kontatzen du. Alemanak haren bila jin ziren Alemaniara lanera eramateko. Haurrekin ibilaldi bat egitera irtena zen

eskolatik. Xelestinek abisua pasatu zion eta ihes egin ahal izan zuen. Anaia Beñat eta biak etxeko zoko batean eta herriko hainbat etxetan ezkutuka ibili ziren. Etxeko trapa batean uzten zituzten haiendako mezuak. Alemanek ez zuten sekula miatu leku hura. Gero, Marokora alde egin zuten eta gerla finitu zenean itzuli ziren.

41. "Behin hasi ezkeroz ez zira gelditzen ahal, behar duzu segitu" (URE-007/018)

Erresistentak ziren Zinkoenekoak. "Beharko" dio, "behin hasi ezkeroz ez zira gelditzen ahal, behar duzu segitu hondar artio". Salaketan beldur omen ziren aitzinean dabiltzanak. Ez zen salaketarik gertatu baina horren beldur bizi ziren eta segurtasun neurri guztiak hartzen zituzten. Alemanak tronpatzen zituzten, baina bertako jendearekin ezin jakin. Aitak ez zekien zertan zebiltzan seme-alabak. Geroago ere ez zioten kontatu.

42. Miaketak eta salaketak (URE-007/019)

Ez zen festa berezirik egin Urepelen alemanak joan zirenean. Herriko jendea gorde egin ohi zen etxean alemanak sumatzean eta ez zuten haiekin ia traturik; beraiek gehiago, ostatua zutelako. Zenbait miaketa egin zituzten. Alemanek informazioa izaten zuten, salaketa bidez lortua, ziur asko. Gerla amaitu zenean, behialako normaltasunera itzuli ziren berehala.

43. Neskak pilotan, nahiz eta apaizari ez gustatu (URE-007/020)

Herriko festak nolakoak ziren kontatzen du. "Izugarri alegeraiak" omen ziren. Pilotan egitea asko gustatzen zitzaion. Bi anaia gazteagoekin jokatzeko zuten. Pilotari asko eta onak ziren herrian. Igande goizez desafioak jokatzeko ziren elkarren artean. Arratsaldean neskek jokatzeko zuten. Erretoreak errieta egiten ziren, mutikoak ematen zutelako eta horrelakoak erranez. Eta dantzan egitea, berriz, izugarritzeko bekak ziren. Predikuak eta guzti egiten zituen.

44. Xelextin, 'Xalbador' bertsolariaren laguna eta adinkidea (URE-007/021)

Xelextinen etxea oso alaia zen. Dantzaldia egiten zen ostatuan igande arratsaldetan diskogailua ipinita. Gazte talde bat elkartu eta dantzan. Fernando Aire Xalbador bertsolaria ere ibiltzen zen eurekin dantzan. Xelextin baino urtebete gazteagoa zen. Ez zen edalea. Maite zuen kantuz eta koplaka aritzea. Batzuetan isiltzeko erran behar izaten zioten, aseta zedenean. Mattin eta biak kantatu ohi zuten festetan.

45. Urepel, izigarri herri alaia (URE-007/022)

Herri alaia zen Urepel. Igande oroz jendea kantuz aritzen zen. Ez zen autorik, eta jende guztia herrian geratzen zen. Lanerako orduan ere, belarra ontzeko aroan, esaterako, jendea elkarrengana biltzen zen. Herriko festak lau egun irauten zuten. Laugarrena zoragarria zen, Aldudear guztiak jiten baitziren. Gazteek antolatzen zituzten festak.

46. Festen laugarren eguna, onena (URE-007/024)

Musika, festa eta kalapita izaten zen festen laugarren egunean. Arratsaldean, lehenik pilota partida eta haren ondoren dantzaldia. Pilota amaitu eta berehala hasten zen dantza. Gauerdiko edo finitzen zen. Zikero-janak egiten ziren zenbait igandez, baina ez festetan. Akordeoia eta klarinetea izaten ziren

musika tresnak. "Pentze Txikia" esaten zioten goragunean kokatzen ziren musikariak.

47. Nesken arteko pilota-partidak jendearen aitzinean (URE-007/025)

Xelestin eta herriko errientak osatzen zuten bikote bat eta Aldudeko bi neskek bestea. Bi partida jokatu zituzten jende aitzinean, bat Alduden eta bestea Urepelen. Ikusle pila izan zuten. Alemanen denbora zen. Ez du ondo oroitzen nork eskatu zien jokatzeko. Herriko bi errientaren (maistra) kontra aritzen zen sarri.

48. Urepeletik Aldudera eta Aldudetik Urepelera (URE-007/026)

1949an ezkondu zen. Orduan utzi zuen ostatua. Gero, Urepeleko beste etxe batean bizi izan zen lehendabizi eta Aldudera joan ziren gero bizitzera. Fruta-denda bat izan zuen han hainbat urtez. Erretreta hartuta, Urepelen etxea erosi eta jaioterrira itzuli ziren. Eskalaponeia etxeak izena, agian eskalapoinak egiten zirelako noizbait.

49. Baionara joan eta etorri bizikletan (URE-007/027)

Baionatik hornitzen zuten fruta-denda. Senarrak bazuen gidatzeko baimena. Gaztetan bizikletan joaten ziren noranahi. Donibane Garazira edonor joaten zen. Xelestin Baionaraino joan zen behin. arratsaldeko lauak aldera Urepeletik irten eta 7ak aldera Baionan ziren. Lehertuta. Eta itzuli ere bizikletan. Orduan normala zen ibilbide luzeak bizikletaz egitea.

50. Jendea orain baino lasaiago bizi zen orduan (URE-007/028)

Jendea orain baino lasaiago bizi zen orduan. Xelestinen bi anaia Ameriketara joan ziren bizitzera. Hainbat ahizpa hortik zehar. Bi ahizpa geratu ziren etxean, amari ostatuan laguntzen.

51. Larre motzean hazitakoak aiseago darama sufrimendua (URE-007/029)

Ea anaiak Ameriketara artzain lanean aunitz sufritu zuten galdetuta, dio ez zirela horretaz mintzatzen. Dena dela, etxean zaildutakoak, larre motzean hazitakoak zirela eta horrela aiseago eramaten dela sufrimendua. Bizimodua nekezagoa zen orduan orain baino. Baina gabeziara ohitzen bazara gehiago estimatzen dituzu gauzak gero.

52. Urepel hustua eta triste gaur egun (URE-007/030)

Hustuta eta triste ikusten du gaurko Urepel. Lehen oso herri alaia zen, jende anitz zen, baina orain ez da ia inor ikusten. Ume anitz zen garai hartan. Eskolak beteak ziren, 90 bat ikasle izango omen ziren. Etxe bakoitzean ume pila izaten zen. Elkarrizketagileak esaten dio dozena bat besterik ez direla gaur egun. "Ze mixeria, pena ematen du" erantzun du Xelestinek.

53. "Bizia ixtanteko pasatzen da" (URE-007/031)

Zerbitzu falta handia du Urepelek. Lehen geldi egon ezin eta orain nahiago etxean egon, dio. "Bizia ixtanteko pasatzen da, eta balia zite, zeren laburra da". Duela 25 urte itzuli zen Urepelera, eta atzo izan balitz bezala iruditzen zaio. Fite pasatzen omen da bitzita.

54. Muga (URE-013/001)

Mugak karabineroek zaintzen zituzten. Beraien mendian paperak erakutsi beharrak sutzen zuen. 40 urte luzaz iraun du horrek. Frantses nacional agiria iraungia du eta amerikarra kontserbatzen du. Horrek errespetua sortzen die Guardia Zibilei.

55. Inguruko herriekiko harremana. (URE-013/002)

Lehenago Aldude eta Urepele bat ziren. 1862an bereizi ziren. Halere beti ongi aditu dute elgar. Auritz eta ingurukoekin ere harreman ona dute. Elizondora ere joaten ziren. Lehenago Erroibar guzia euskalduna zen baina galdu egin zuten gero. Halere haurrak orain badakite eta aurrerapauso handi da hori.

56. Euskararen aldeko jarrera (URE-013/003)

Ari da euskara goiti, aina beti ari izan behar da euskaraz horretarako.

57. Bankako minak (URE-013/004)

Garai batean Bankako minetan 400 bat langile baziren. Fabrikengatik oihan asko moztuak izan dira. Orain zelaiak diren asko oihanak zirela frogatzen dute ikatz plazek.

58. Azken ikazkinak (URE-013/005)

Lesakako Manuel Altzugarai ikazkina Urepelen bizi izan zen. Gaur egunean haren seme-alabek badakite, eta baita bereak ere, baina gaur egunean ez da inor ere ari. Gaur egunean Oihana osatzen doa poliki-poliki.

59. Orreagaganako fedea (URE-013/006)

Lehenago jende andana bat joaten zen Orreagara. baxe nafartarrak Irailaren 8an egiten diote erroemaldia. Aitatzik meza sariak ematen zizkion hango apaiz bati, gogotik, ardo trago bat ematen baitzion ordainetan.

60. Lehengo eta oraingo bizimodua (URE-013/007)

Jendea gaur egun presaka bizi da. Garai batean patxada handiagoa bazen.

61. Biografia txikia (URE-014/001)

Kalifornian sortu zen. Aita urepeldarra zuen, ama hazpandarra, eta han ezagutu zuten elkar. 10 urteak arte ibili zen eskolan, baina orduan lurrikara gertatu zen eurak bizi ziren lekuan, long beach-en eta horren ondorioz ama hil egin zen. Hori dela eta aitak Urepelera etortzea deliberatu zuen. Ingelesa ongi menderatzera heldu zen eta asko maite du. Urepelera itzultzean, gaur egun bizi den etxaldea erosi zuen aitak.

62. Hazparneko kolegioa (URE-014/002)

10 urtetan, Hazparneko kolegioan sartu zuten frantses mikorik ez zekiela. Bera bezala baziren han euskara baizik ez zekitenak, eta zigorren bidez ikastera behartuak izan ziren. Txotxa erabiltzen zuten, eta azken orduan hura zuenak zigorra zuen. Kalkuloak egiten eta idazten bazekien, baina han zerotik hasiko balitz bezala sentitzen zen. Hala ere, hiru urteren buruan "certificat" delakoa lortu zuen.

63. Nafartzat du bere burua, ez frantseztat (URE-014/003)

Nafarra sentitzen da, eta familiako ikerketak egin ondoan XVII. mederaino heldu zen eta bere abizena Baigorritik datorrela deskubritu du. Hor ohartu zen nafarra baino ez zitekeela izan. Nahiago du amerikarra dela esatea frantsesa dela esatea baino.

64. Euskararekiko jarrera (URE-014/004)

Euskara etxean ikasi badu ere, saiatu da bere burua alfabetatzen liburuak irakurriz. Seme-alabei transmititu die.

65. Eleaniztasuna (URE-014/005)

Ameriketan gaztelera ere ikasi zuen mexikarren laguntzaz, eta beraz lau mintzaira hitz egitera heldu da. Irakasleek aitari Txominek eskolan jarrai zezan eskatu zion vaina honek ukatu, etxaldean segida behar baitzuen. Domaia handia, lau mintzo jakinik nonahi lanpostu on bat aurkitzen ahalko baitzuen.

66. Auzapez lana (URE-014/006)

Sei urte egin zituen auzapez. Ainitz maite ukan zuen, zerbitzu egiten baizitzaion herriari. Halarik ere ez ziren momentu errazak izan beretzat, emaztea galdu baitzuen. Bera izan zen telefonoa herrian ezarri zuena. Elektrikaren boltaia ere handitu zuten. Errepideen inguruan ere balegoke lan frango egiteko.

67. Despopulaketa (URE-014/007)

Lehenago gazteak Ameriketara joaten ziren, baina gaur egunean gazte guztiak eskoaltzen dira. Horientzat ez da ordea lanik herrian eta gazteak kanpora doaz. Familiak txikitu dira eta etxeak husten doaz. Denboran baziren eskolan 70 bat haur eta orain berriz, 12. Mendiz bestaldeko Nafarroan ere despopulaketa handia izan da.

68. Gazteak laborantxan (URE-014/008)

Gaur egun nekazaritzan ari direnak indar handiz ari dira, eta "Ossau-Iraty" edota "Idoki" bezalako marken bitartez Aurrera ari dira. Pokoeneako sendia eredu da horretan.

69. Berriro ere Ameriketara bisitan (URE-014/009)

handik hona bizitzera etorri eta orduz geroztik bi aldiz izan da Ameriketan, azken aldiz 89 urtetan. Izugarrizko poza eman dio hara joateak eta bere txikitako lekuak haurrei erakusteak. Urte haiek oso garrantzitsuak izan ziren beretzat.

70. Ameriketarako emigrazioa (URE-014/010)

Ia etxe guzietan bazen norbait Ameriketara joana. Familiako edota eskolako laguntzak bezalako lege sozialak onartu direlarik gelditu da emigrazioa. Gazteak partitzen ziren, sos puska bat egin, itzuli eta neska gazteekin ezkontzen ziren.

71. Ameriketako artzain-lanak (URE-014/011)

Desertuko bizia ez zen bizia. Gizon gazte bat, ardi saldo handi batekin, astoren bat inguruan, bakar-bakarrigun egun andana batez eta inkomunikatuta, bizitza

gogorra zen egiaz. Suizidatu zirenak ere izan ziren. Askori damutu zitzairen hara joan izana. Hiriko bizimodua hobea zen.

72. Ameriketako sorlekuaren aldaketa (URE-014/012)

Ez da kexatzen bere gaur egungo bizimoduaz, bizitzeko behar duen gutzia baitu. Bere sorterrria Ameriketara asko aldatu da. Lehen oso biztanle gutxi zegoen eta orain asko handitu dira hiriak, neurri handi baten arma fabrikengatik. Gaur egunean nahiago du hemen bizi.

73. Espainiako Gerra Zibilaren eragina (URE-014/013)

Espainiako Gerra Zibila zela eta jende asko etorri zen Aldudeko ibarrera.

74. Kintoako familia errepublikano baten gorabeherak gerla zibila denboran (URE-015/001)

Jean Pierre Errecarten aitatxi-amatxiak Iruña ondora eramana izan ziren, gainerateko familiak sortetxea utzi behar izan zuen, gauaz, kabala guziak beraiekin segiarazten zituztela. Zenbat urtez bizi izan dira batzu eta besten etxean, Urepelen besteak beste. Kintoko familia bakarra da egoera hau bizi izan duena.

75. Ipar Ameriketara abiatzea 1951ko martxoan (URE-015/002)

Garai hartan, lagun asko bazituen Ameriketara joan zirenak. Bera Bakersfield-en zuen osaba batengana abiatu zen, Kaliforniara. Honek pagatu zion bidaia.

76. Artzain bizia Lost Hills-eko basamortuan (Bakersfield inguruetan) (URE-015/003)

Jean Pierre Banka Bernateneko artzain batentzat hasi zen lanean, urteko bildotxen zaintzen, Bakersfield inguruko Lost Hills-eko basamortuetan. Urte biziki idorra izan zen. Lost Hills basamortuan jiten da, hazitik, bazka biziki aberatsa & alfiler & deitzen dutena. Han badira basa ehize frango (erbiak, urtxintxak) eta koioteak ere.

77. Kanperero bizia (Bakersfield inguruetan) (URE-015/004)

Jean Pierrek bigarren urte bat egin du kanperero gisa, beste nagusi batentzat : kanpereroak artzaina laguntzen du tokiz aldatzen korrale berriak eginez, roulotta mugituz, ura ekarriz.

78. Artzaingoa Kalifornian beste bizimoduer konparatuta (URE-015/005)

Jean-Pierrek azken 10-12 urteak egin ditu lehenik rancho batean eta gero saltegi handi batean. Bai bizimoldea, bai hilabete saria oso desberdinak ziren.

79. Kaliforniatik Euskal Herrira itzultzea 1965ean (URE-015/006)

Hamalau urte Kalifornian pasa eta, Jean-Pierre itzuli da Euskal Herrira, famuliatua (emazte bat eta hiru haurrekin).

80. Asko ibili den euskaldun baten nortasuna (URE-015/007)

Jean-Pierre euskalduna senditzen da lehenik, bixtan dena, bainan denbora berean nonahikoa, « kosmopolitua ».

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com